



MAIALEN ARTEAGA
KAZETARIA

Bizitzeko modu bat

Gaur errazagoa omen da munduaren amaiera irudikatzea patriarkatuaren eta kapitalismoaren amaiera imajinatzea baino. Hori irakurri nien, beste gauza askoren artean, Eraitz Saezi eta Lur Albizuri *Gureak ere badira, desira, boterea, epika* liburuan, eta egia da. Espektatiben krisi kolektiboak bizi ditugun garaiotan, gure belaunaldiarentzat iraultzailea da beste mundu posible batean sinistea, beste Euskal Herri bat badela irudikatzea. Are gehiago, etorkizuneko Euskal Herri hori ez dagoela gure zain, baizik eta gaur guk egiten dugunak determinatuko duela hein handi batean biharkoa, bagarela subjektu aktibo, parean duguna eraldatzeko. Agertoki horren testuinguruan bete ditu Ernaik hamar urte; aitortza egin eta ospatzeko momentua da.

Eszenatoki horren antagonismo gisa, milaka gazte elkartuko gara apirilaren 6tik 9ra Elorrion, aurtengo Gazte Topagunean. Etsipen kolektibo horren anomalia da, egitaraua posible egiteko atzean gertatzen den guztiagatik eta lau egun horietan gorpuzten denak duen balio politikoagatik. Gazte topagune, danbada, akelarre zein martxak ehunka gazteren konpromiso militantez antolatzen ditugu. Auzolanean eta modu auto-gestionatuan; geure eskuekin ehundu, geure eskuekin josi eta geure eskuekin

eraiki. Maitasunetik, baina errebeldiatik ere bai. Utopiak hatz puntekin ukiztetik, baina amestetik ere bai. Kontrabotetik, baina boteretik ere bai. Kritikatik, eta autokritikatik ere bai. Deseraikitze-ko, eta beste asko eraikitze-ko ere bai.

Izugarria da utopikoak diruditen egun horietatik nolako harremanak lotatzen diren, nola bertan politizatzen ditugun hainbat kontuk azkura eragiten diguten, geure buruak edo ingurua zailantzan jarri eta eraldatzeraino. Amesten dugun Euskal Herri aske, sozialista eta feminista posible denaren adibide praktikoa eta kolektiboa da, elkar zaintza eta indar komunitarioa zutabe dituen, Euskal Herri hobe baten ortzimuga marrazten duena, hezur-haragizatzen duena. Egun horietan gertatzen den guztia ez litzateke posible izango atzean dauden esku eta lan izugarriagatik izango ez balitz. Arrazoia dugu: elkarrekin posible da. Neoliberalismoarentzat mehatxu gara, espektatiben greba mugagabe honetan, eskirolak. Sistema patriarkal eta kapitalistak ez digu sekula disidente izatea barkatuko.

Amesten dugun etorkizuna posible den ideia bera, bizitzeko modu bat da. Geroa gaurdanik, orain, hemen, guk, elkarrekin eraikitzea posible den ideia bizitzeko modu bat da; batu bizitzeko modu honetara. ●



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Beltzuriz

XX. mendetik hitzen beldur larri batekin atera gara. Ez gara gehiago menturatzen gauzak izendatzera, dena zirkunboluzio, metafora eta eufemismo gabiltza errealitatearen latza leundu nahi bagenu bezala: Elkanok ez zuen Portugaleko erregearen ametsa partekatzen eta engoitik herritar beltz ustez subalternoak "arrazializatzen" ditugu. Espezie humanoan arrazarik ez dago eta zehaztu direlarik shoah-ren, apartheidaren edo segregazioaren barbariara bultzatu zuten lur osoa.

Erran behar dut zimiko bat eragiten didala, hainbat lagunek "beltz" hitza

ahoskatu nahi ez eta beltzak "arrazializatuak" direla diotelarik. Mihiaren harilketa hori gainera komentatzaile zuriek daukate, 2020an George Floyd erail zuteneko protestetan "black lives matter" aldarrikatzen baitzuten hiritar beltzek. Batzuetan, iruditzen zait arraza kontzeptuaren esnatze berri honek neokolonialismo kutsu bat duela, larrua zuri dutenek beren burua "arrazializatutzat" ez daukatelako. Eta, urrunago joanez, ez ote da, arrazarena seinalatuz, beltz bat edo, bere balizko "arrazan egokitzen"?

Beti bestea da "arrazializatu"... ●